BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

21. zk. 2026, otsailak 02. Astelehena 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Euskaltegia (Basauri)

Administrari lanpostu bat txanda irekiz betetzeko lehiaketa-oposizioan, epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda osatzea.

Basauriko Udal Euskaltegiko Presidenteak, Maria Nieves Fernández Moránek, 2026ko urtarrilaren 18an, Lehendakaritzaren ebazpen hau eman du:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 108. zenbakian, 2025eko ekainaren 9an, eta 147. zenbakian, 2025eko abuztuaren 5ean argitaratu ziren deialdi honetarako oinarriak. Oinarriotako zazpigarren artikuluan jasotakoaren arabera epaimahai kalifikatzailearen izendapena egin behar da. Gainera, 6. artikuluan jasotako hautagaien onartzea eta ez onartzea ere argitaratu behar da.

Epaimahai kalifikatzailearen izendapenari dagokionez, jasoak ditugu epaimahaikide proposamenak IVAPetik, Basauri, Laudio eta Leioako udaletatik eta Euskaltegiko langile batzatik.

Hautagaiak aurkezteko epea, berriz, BOEn 265. zenbakian 2025eko azaroaren 4an argitaratu zenez, deialdia, abenduaren 2an amaitu zen. Epe barruan aurkeztutako eskaerak aztertu ditugu.

Lehenengoa: Epaimahai-kalifikatzailea izendatzea, honela:

— Mahaiburua:

- Anne M. Ereñozaga Landa, Euskaltegiko zuzendaria.

  Ordezkoa: Bego Izquierdo Benito, Euskaltegiko irakaslea.

— Mahaikideak:

- Nuria Herrero Hernandez, Euskaltegiko administraria.

  Ordezkoa: Mikel Arrieta Angulo, Basauriko Kultur Etxeko administraria.

- Geno Belaustegi Agirretxea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatua.

  Ordezkoa: Matxalen Aparicio Benito, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatua.

- Ainhoa Etxabe Chamorro, Laudioko Udal Euskaltegiko administraria.

  Ordezkoa: Pilar Gutierrez Anton, Leioako Udal Euskaltegiko administraria.

- Miren Aintzane Etxebarria Urkiola, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatua, euskara proba egiteko.

  Ordezkoa: Katarzyna Maria Piejko-Martinez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatua, euskara proba egiteko.

— Idazkaria:

- Idoia Kaltzada Fernandez, Euskaltegiko idazkari akademikoa.

  Ordezkoa: Laura Moragues Oregui, Euskaltegiko irakaslea.

Bigarrena: Hautaketa-prozesurako hautagaiak onartzea eta baztertzea.

Taulan jaso dira izangaiak, nortasun agiriaren ordenan, onartuak izan diren ala ez ezarrita, eta ezezko kasuetan bazter uzteko akats edo omisioak zehaztuta.

Onartzeko zutabean bai ezarrita dutenak lehiaketa-oposiziorako onartuak izan dira.

Ez ezarrita duenak, alegia, kanpo utzitako izangaiak, erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea izango du, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.artikuluan dioenaren arabera.

eek: BAO-2026a021-(II-378)

NAN	Onartua	Ez onartua izateko arrazoia
14****68	BAI	
15****35	EZ	Ez du aurkeztu titulazioa
16****99	BAI	
16****26	BAI	
30****97	BAI	
45****60	BAI	
45****95	BAI	
45****91	BAI	
45****06	BAI	
60****76	BAI	
78****43	BAI	
78****25	BAI	
78****38	BAI	
78****69	BAI	
78****38	BAI	
78****86	BAI	
78****55	EZ	Ez du ordaindu tasa
78****60	BAI	
79****08	BAI	
79****37	EZ	Ez du ordaindu tasa

Hirugarrena: Ebazpen hau argitaratzeko agintzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta webgunean (euskaltegia.basauri.eus).

Basaurin, 2026ko urtarrilaren 18an.—Presidentea, María Fernández Morán

eek: BAO-2026a021-(II-378)